



HAURRESKOLEN ANTOLAMENDUA ETA HAURRAK ONARTZEKO ARAUTEGIA

03/01-2026 Erabakia, 2026eko urtarrilaren 26koa, Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordearena, zeinaren bidez onartzen baitira Haurreskolak Partzuergoko plazen eskaintza, funtzionamendua eta haurren izen-emate arauak 2026-27 ikasturterako.

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko haurren Haur Eskolak arautu ziren 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetarako hiru urtetik beherakoei hezkuntza-arreta eskaini eta familiei laguntzeko zerbitzu espezializatua eskaintzeko helburuarekin.

Eskubide sozialen Europako Printzipioetan dago jasota hurrek eskubidea dutela lehen haurtzaroko hezkuntza eta zaintza eskuragarriak eta kalitate onekoak izateko.

Bestalde, maiatzaren 30eko 75/2023 Dekretuak, Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa denak, hezkuntza-sistemaren pedagogia eguneratu eta hezkuntza-helburu berriak ezarri ditu, haurren funtsezko konpetentziak eskuratzea ahalbidetuko dutenak.

Aipatutako manuak betez, Haurreskolak Partzuergoaren helburu dira: a) Familiekin lankidetzan, haurren garapen integrala sustatzea adingabeen eskubidearekiko errespetuaren, ongizate psikofisikoaren eta afektibitate, zentzumen eta mugimen, ezagutza, harreman eta gizarte ahalmen guztien garapenaren ikuspegitik prestatu eta sozializatzearen bidez. b) Ekitatea bermatzen duen prebentzio-hezkuntza bat sustatzea eta, bereziki, gizarte edo pertsona mailan beharrik handienak dituztenei arreta eskaintzea, parekotasuna bilatuta. c) Hezkuntza-ekintzaren hasieratik Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan elebitasuna bermatzeko baldintza egokiak erraztea eta bultzatzea. d) Familiei hiru urtetik beherako hurrei eskainitako zaintza eta arretaren bidez laguntza-zerbitzua ematea, familia eta lana uztartzeko mekanismo gisa. e) Landa-eremuetako biztanleei hezkuntza eta laguntza izaerako zerbitzu baten eskuragarritasuna ahalbidetzea.

Helburu horiei jarraiki, eta Haurreskolak Partzuergoaren estatutuen 18. artikulua ematen dizkion eskumenak baliatuz, Zuzendaritza Batzordeak honako erabaki hau onartu du.

ERABAKIA

Lehena.- 2026-27 ikasturtean Haurreskolak Partzuergoko eskaintza eta zerbitzuaren ezaugarriak eta haurren izen-emate arauak eta irizpideak onartzea erabaki honen Eranskinetan jasotako baldintzetan.

Bigarrena.- Haurreskolak Partzuergoko Gasteizko Haurreskoletan Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Haurreskolak Partzuergoaren arteko lankidetzaren hitzarmenean zehazturiko onartze-irizpide eta arauak aplikatuko dira, leihatila bakarraren bitartez.

Eibarren, 2026ko urtarrilaren 26an

Begoña Pedrosa Lobato
Haurreskolak Partzuergoko presidentea

Irene Muguruza Mendarte
Haurreskolak Partzuergoko idazkaria



HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO PLAZEN ESKAINTZA, FUNTZIONAMENDUA ETA HAURREN IZEN-EMATE ARAUAK 2026-27 IKASTURTEA

1.- Plazen eskaintza

Izena emateko garaian haurreskola desberdinetako plazen eskaintza ikusgai izango da. Familiek eskaintza horretako plazaren batean matrikulatu ahalko dute euren haurra. Hala ere, plaza horiek moldatu ahal izango dira sortzen diren beharrei erantzuteko.

Unitate bakoitzeko haurren gehienezko ratioak honakoak izango dira:

- Urtebete baino gutxiagoko haurren unitateak: 1/8
- Urtebeteko haurren unitateak: 1/13

Haurreskola batean dagokion adin tartean plaza hutsik ez badago, izen-emate epea ez da irekiko adin tarte horretarako.

Azaroaren 16ko 215/2004 Dekretuaren amaierako xedapena garatzen duen 2008ko apirilaren 10eko aginduan jasotzen denaren arabera, Haurreskolak Partzuergoak landa gune edo hirigune moduan kalifikatutako guneetan adin desberdinetako haurrak taldekatzeko eskumena izango du. Taldekatze hauek gehienez ere 10 hurrekoak izango dira eta gehienez ere 0 urteko 6 haur izango dituzte antolaketa arrazoiengatik.

2.- Haurreskolen egutegia

Haurreskolek irailaren 4tik uztailaren 31ra bitartean eman ahalko dute zerbitzua haurreskola bakoitzak bere egutegi propioa izanik.

Guztira haurrei 196 egunetan emango zaie arreta zuzeneko zerbitzua.

Haurreskola bakoitzean jarraipen batzordea eratuko da Udalaren, familien eta hezitzaileen ordezkariak osatuta. Bertan adostuko da egutegia, eta proposamena Haurreskolak Partzuergoari helaraziko zaio, honek onartzeko, 2026ko uztailaren 3a baino lehen.

3.- Ordu-tegiak

- 3.1.** Oro har, haurrak ezin dira zentroaren barruan 8 ordu baino gehiago egon.
- 3.2.** Bi ordu-tegi mota eskainiko dira eta mota bakoitzean, haurren sarrera-irteerarako ordu-tegi malguak izango dituzte, bitarteko orduetan Haurreskolako hezkuntza alderdia lantzea ahalbidetuz.
 - a) Goizeko ordu-tegia: 7:30etatik 14:00ak arte
Haurren sarrerak 7:30-9:30 eta irteerak 13:00-14:00
 - b) Egun osoko ordu-tegia: 7:30etatik 16:00ak arte.
Haurren sarrerak 7:30-9:30 eta irteerak 15:00-16:00



- 3.3.** Familiek ordutegi mota aldatu beharko balute (goizeko ordutegitik egun osoko ordutegira edo alderantziz), aldaketa-data baino astebete lehenago jakinarazi beharko dute haurreskolan.
- 3.4.** Haurreskolak Partzuergoan lehen aldiz sartzen den haur orok hamar laneguneko egokitzapen aldia beteko du gutxienez haurreskolarekin adostutako orduetan. Helburu horretarako, haur sartu berrizat hartuko da Haurreskolak Partzuergoko edozein haurreskoletan baja eta alta artean hiru hilabete edo gehiago igaro badira.

Prozesu horren helburu nagusia haurrak familiaren baitako erreferentzia afektiboen figuretatik bereiztea da. Hasiera batean, gelako hezitzailea erreferentziazko figura bihurtuko da haurreskolan, baina gainerako hezitzaileak ere pixkanaka harreman horretan sartuz joango dira, balizko langile-aldaketek eraginik izan ez dezaten. Hau da, egokitzapen-aldiaren bitartez, familia-esparrutik haratago, haurraren sozializazio-prozesu osoa landuko da, bere garapen integralaren baitan.

4.- Otorduak

- 4.1.** Familia bakoitzak aukeratuko du janaria etxetik eraman ala catering-zerbitzua erabili nahi duen; betiere, catering zerbitzu hori bideragarria denean (batez ere, janari kopuruari eta instalazio egokiei dagokienez).
- 4.2.** Gurasoek bazkaria etxetik eramatea erabakitzen badute termoetan egin beharko da, ez tupperware-etan, haurreskolako instalazioetan janariaren egoera edo kalitate ona ziurtatzeko. Ezinbestekoa da bazkaria beti bero-bero eramatea.
- 4.3.** Catering-zerbitzua erabiliz gero, zerbitzu horren kudeaketa eta ordainketa familiek egingo dute. Zerbitzu horren erabileraren berri Haurreskolak Partzuergoko Plangintza eta Prebentzio Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio.

5.- Doakotasuna

Haurreskolak Partzuergoko zerbitzua **doakoa da**.

6.- Asistentzia

Haurreskolak Partzuergoak matrikulatutako haurren hileroko asistentziaren jarraipena egingo du berariazko aplikazio informatiko bidez eta Hezkuntza Sailaren Ikuskaritza Zerbitzuaren laguntzarekin. Haurreskoletan izena eman duten hurrei gutxienez hilean %80eko asistentzia eskatuko zaie (behar bezala justifikatutako hutsegiteak ez dira asistentzia faltatzat hartuko).

Haurra haurreskolara joaten ez den bakoitzean mezua jasoko du guraso edo tutoreak komunikazioetarako jakinarazi duen helbide elektronikoan, bere haurra ez dela bertaratu jakinaraziz.

Hutsegite justifikatuak: Hutsegitea justifikatutzat joko da familiak alde zuzenetik jakinarazi baldin badio haurreskolari.



Hilabete jarraiko hutsegite justifikatuak baino gehiagoko kasuak banan-banan aztertuko dira. Hau horrela, beste 20 lanegun jarraian huts eginez gero, ofiziozko baja eman ahalko zaio haurrari.

Hutsegite ez justifikatuak: Behar bezala jakinarazi gabeko hutsegiteak ez justifikatuzat hartuko dira. Kasu horietan, behin mezua jasota, familiak justifikatu egin beharko du haurra ez joan izana IKASGUNE web bidezko plataforman erregistratuta edota ohiko bideak erabiliz; aurrez-aurre, telefonoz edo emailaz.

Justifikatu gabeko hutsegiteak izango dira ere ezarritako sarrera-irteera ordutegi-mugak ez errespetatzea. Kasu hauetan, egun erdiko falta jarriko zaie ezarritako muga horietan bertaratzen edota ateratzen ez diren haurrei.

Sarrera eta irteera-ordutegien ezarpenaren helburua da hezkuntza proiektuan oinarrituz, haurrei hezkuntza-alderditik arreta bermatzea eta hezkuntza-lana ez etetea. Garrantzitsua da, beraz, ordutegi horiek errespetatzea, haurreskola modu egokian antolatzeko eta sartu-irten horiek guztiek gainerako haurrengan eragiten duten egonezina saihesteko.



HAURRESKOLAK PARTZUERGOA **2026-27 IKASTURTEAN HAURREN IZEN-EMATE PROZESUAREN ARAUAK,** **LEHENTASUN-IRIZPIDEAK ETA EGUTEGIA**

1. Onartze-irizpide orokorrak

- 1.1.** 2025 eta 2026 urteetan jaiotako haurren guraso edo legezko tutoreek Haurrekolak Partzuergoko zentroetan plaza eska dezakete. (Udalerrian 2 urteko gelarik eskaintzen duen ikastetxerik ez badago, 2024an jaiotako haurrek ere plaza eska dezakete udalerrri horretako haurrekolan).
- 1.2.** Haurrekola zabaltzeko 3 haurrek eman beharko dute izena, gutxienez.

Behin haurrekola zabaldu ondoren, bi haur edo gutxiagok bakarrik jarraituko balute, hiru hilabetez mantenduko da zabalik. Aldi horretan matrikula berririk ez baldin badago, haurrekola itxi egingo da ikasturte horretarako.

Egoera horretan matrikulatuta geratzen diren haurrak lehentasuna izango dute plaza librean dituzten beste haurrekola batean izena emateko.
- 1.3.** Aurkeztutako eskaera guztiak barematu egingo dira, arau hauen laugarren atalean ezarritako lehentasun-irizpideen arabera.
- 1.4.** Izen-ematea egiterakoan familiak lehentasun-ordenaren arabera aukeratuko du haurrekola, eta hori kontuan hartuko da izen-emate prozesu osoan zehar. Ez da onartuko aukeratutako haurrekolen arteko ordena aldaketarik behin izen-ematea aurkezteko epea amaituta.
- 1.5.** Onartuak izan ez diren eskaerak itxaron zerrendan geratuko dira.
- 1.6.** Itxaron-zerrenda duen haurrekola batean plazaren bat libre geratzen bada, zerrendako lehenarekin jarriko da harremanetan Haurrekolak Partzuergoa; betiere, kontuan hartuta libre gelditzen den plaza zein adin-tarte eta gelatakoa den. Gehienez aste bat emango zaio familiari erantzuteko eta beranduenez, haurrekolako hurrengo hilabetearen lehen lanegunean hasiko da. Lokalizatu ezin bada edota plazari espresuki uko egiten badio, itxaron-zerrendatik kanpo geratuko da eta plaza zerrendako hurrengoari eskainiko zaio printzipio edo oinarri bera jarraituta.
- 1.7.** Itxaron zerrendan dagoen haur batek eskatutako haurrekolaren batean plaza lortzen badu beste itxaron zerrendatik desagertuko da.
- 1.8.** Izen-ematea baieztatzean, haurra haurrekolako hurrengo hilabetearen lehen lanegunean hasiko da dagokion haurrekolan. Justifikaziorik gabe hala egin ezean, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko da eta ofiziozko baja emango zaio.
- 1.9.** Hasiara-datan ez da atzerapenik onartuko. Hala behar izanez gero, hurrengo hilabeteko izen-emate prozesuan hartu beharko du parte haurrak.
- 1.10.** Haurra ez da onartua izango baldin eta gurasoak jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioaz gozatzen ari badira haurra haurrekolan hasi behar deneko datan.

Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestaziorik jasotzen ez dutela justifikatzeko urtebete baino gutxiagoko haurren gurasoek edo tutoreek

prestazioaren gaineko Gizarte Segurantzaren ebazpena aurkeztu beharko dute. Gutxienez baimenaren 17 aste justifikatu beharko dira. Beraz, 17 asteak hartzeari buruzko Gizarte Segurantzaren ebazpenik ez izanez gero (guraso bakarreko haurren kasuan 28 aste eta erditze anitzeko kasuan 18 aste), gainerako asteak noiz hartuko diren zehazten den enpresa-ziurtagiria aurkeztu ahal izango da.

Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez diren kasuetan Gizarte Segurantzaren ziurtagiria aurkeztu beharko da non aipatutako prestazioa ez dagokiola edo jaso ez dela zehazten den baldintzak ez betetzeagatik, edo egoera hau ziurtatzen duen lan bizitza eguneratua¹ aurkeztu beharko da.

Ezin izango da inskribatu baldin eta guraso bakarrari zein bi gurasoen artean bost aste baino gehiago hartzeko geratzen badira haurra haurreskolan hasi beharreko datan.

Jaiotzagatiko prestazioa lan jardun partzialean hartzen den kasuetan, betiere baimenaren 17 asteak justifikatzen badira (guraso bakarreko haurren kasuan 28 aste eta erditze anitze anitzeko kasuan 18 aste), haurra haurreskolan has liteke.

Jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioarekin egon arren, haurrak matrikulatu ahal izango dituzte honelako kasuetan, baldin eta baremoaren arabera plaza lortzen badute:

- Gaixotasun larria edo haurra zaintzeko ezintasuna duten gurasoen kasuan, dagokion mediku ziurtagiriarekin egiaztatuta.

1.11. Oraindik jaio ez diren haurrak ezin izango dira inskribatu.

1.12. Haurrek 17 aste beteta izan beharko dituzte haurreskolan hasterakoan.

1.13. Gizarte Zerbitzuetatik zuzenean jasotako haurren osasun zein segurtasunagatik sortutako urgentziazko kasuen izen-emate eskaerei lehentasuna emango zaie plaza lortzeko eskatutako haurreskolan baldin eta plaza hutsak badaude. Haur horiek haurreskolan hasi ahal izango dira edozein hileko edozein egunetan salbuespen gisa sortutako urgentziazko egoera horri ahalik eta erantzun azkarrena emate aldera.

1.14. Azaroaren 2ko 132/2022 Dekretuan zehaztu bezala, urte naturaleko azken lauhilekoan jaio diren eta muturreko prematuritateko edo prematuritate handiko baldintzak dituzten haurren kasuan adinagatik dagokiena baina beheragoko maila batean sar daitezke, soilik Haur Hezkuntzako edozein mailatan lehen aldiz sartzen direnean. Horretarako gurasoek edo tutoreek nahitaezko txosten medikoa aurkeztu beharko dute.

1.15. Izen-emate orriarekin batera aurkeztutako dokumentazioa kontuan hartzeko ezinbestekoa izango da hau Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean idatzita egotea edo itzulpen ofiziala aurkeztea.

1.16. Haurreskolak Partzuergoak noiznahi egiaztatu ahal izango du ekarri zaizkion dokumentuen benetakotasuna. Eskatzaileek emandako informazioa edo dokumentazioa faltsua bada edo egiazkoa ez bada, eskaera baliogabetu egingo da.

2. Eskabide-orriarekin batera aurkeztu behar den nahitaezko dokumentazioa

- 2.1. NAN edo AIT atzerritarren kasuan (AIT ez dutenek, pasaportearen aurkeztu ahalko dute). Dokumentua bi aldeetatik aurkeztea ezinbestekoa da, eta data, argazkia eta sinadura ondo ikusi behar dira.
- 2.2. Erregistro zibileko inskripzioa (Jaiotza-inskripzioaren hitzez hitzeko ziurtagiria) edo familia liburua
- 2.3. Haurreskolan hasteko datan urtebete baino gutxiago duten haurren kasuan, jaiotzagatiko eta adingabearen zaintzagatiko prestazioaren gaineko Gizarte Segurantzaren ebazpena edo enpresa ziurtagiri eguneratua¹
Prestazioa jasotzeko baldintzak betetzen ez diren kasuetan Gizarte Segurantzaren ziurtagiria non aipatutako prestazioa ez dagokiola edo jaso ez dela zehazten den baldintzak ez betetzeagatik, edo egoera hau ziurtatzen duen lan bitzita eguneratua¹ aurkeztu beharko da.
- 2.4. Banandutako edo dibortziatutako gurasoen kasuan guraso bati zaintza ematen dion erabaki judizial irmoa, epaileak berretsitako hitzarmen arautzailearen kopia edo behin-behineko neurrien autoa.
- 2.5. Haurraren osasun zein segurtasunagatik sortutako urgentziazko kasuetan Gizarte Zerbitzuetatik jasotako txostena sortutako urgentziazko egoera zehazten.
- 2.6. Muturreko prematuritate edo prematuritate handiagatik maila txikiago batean onartzeko eskabidearen kasuan, egoera hori ziurtatzen duen mediku-txostena.
- 2.7. Gaixotasun larria edo haurra zaintzeko ezintasuna duten gurasoen kasuan, dagokion mediku ziurtagiria.

3. Baja ematea

- 3.1. Matrikulatutako haur bati baja eman nahi izanez gero, haurreskolari jakinarazi beharko dio familiak haurreskolan eskatutako eta sinatutako baja-ereduaren bitartez, bajaren eguna baino 7 egun lehenago. Baja ematen duten haurrak ezin izango dira berriro matrikulatu ondorengo hiru hilabeteetan.
- 3.2. Bi hilabetez hileroko gutxieneko %80ko asistentziara iritsi ez diren haurrei baja emango zaie eta ezin izango dute Haurreskolak Partzuergoan berriro izena eman ondorengo hiru hilabeteetan (behar bezala justifikatutako hutsegiteak ez dira asistentzia faltatzat hartuko).
- 3.3. Ofiziozko baja emango zaio ere arrazoi justifikaturik gabe 10 lanegun jarraian haurreskolara joaten ez den haurrari, eta ezin izango du Haurreskolak Partzuergoan berriro izena eman ikasturte horretan.

4. Onartuak izateko lehentasun-irizpideak

LEHENTASUN-IRIZPIDEAK	PUNTUAK	
	GEHIENEZ	ATALKA
4.1.- Anai-arrebak haurreskolan dagoeneko matrikulatuta egotea	9	
4.2.- Bizilekuaren edo lantokiaren gertutasuna (kontzeptu hauek ez dira metagarriak) a) Amak, aitak edo legezko tutoreak haurreskolan lan egitea b) Bizilekua haurreskolaren udalerrian izatea (Haurreskolarik ez dagoen kasuetan, bizilekutik gertueneko haurreskolarako esleituko dira puntuak) c) Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea amaren, aitaren edo lege ordezkariaren lantokia	7	7 5 3
4.3.- Ama, aita edo legezko tutoreen lan-egoera (behin-betiko ezintasun iraunkor absolutua lanean jardutearekin parekatuko da ondorio hauetarako) a) Bi gurasoak edo legezko tutoreak lanean jardutea b) Guraso bakarreko familietan guraso bakarra edo legezko tutorea lanean jardutea c) Guraso bat lanean eta bestea, edo legezko tutoreak, enplegu bilaketa aktiboan edo ikasketa ofizialak egiten aritzea d) Bi gurasoak, legezko tutoreak edo, guraso bakarreko familia bada, guraso bakar hori, enplegu-bilaketa aktiboan edo ikasketa ofizialak egiten aritzea	5	5 5 2 2
4.4.- Familia-unitatearen urteko errenta (d azpiataleko puntuak metagarriak dira) a) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 79.380€ edo gutxiagokoa bada b) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 47.628€ edo gutxiagokoa bada c) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 15.876€ edo gutxiagokoa bada d) Eskatzailea ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik	4	1 1,5 2 0,25
4.5.- Haurren, amaren, aitaren, legezko tutorearen edo anai-arrebaren baten desgaitasuna a) Haur eskatzailearena b) Haren amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena	3	3 2
4.6.- Genero-indarkeriaren biktima izatea	2	
4.7.- Familia ugariko kidea edo guraso bakarreko familia izatea a) Maila bereziko familia ugariko kidea izateagatik b) Maila orokorreko familia ugariko kidea izateagatik c) Guraso bakarreko familia bi haur edo gehiagorekin d) Guraso bakarreko familia haur bakarrarekin	1,5	1,5 1 1,5 1
4.8.- Terrorismoaren biktima izatea	1	
4.9.- Haur eskatzailea harrera-familian egotea	1	



4.1. Anai-arrebak haurreskolan dagoeneko matrikulatuta egotea; 9 puntu.

Atal honetan, adopzio aurreko egoeran nahiz harrera-egoeran dauden adingabeak ere haurreskolan matrikulatutako anai-arrebatzat hartuko dira.

Atal honetako puntuazioa emateko, beharrezkoa izango da eskaria egin duen haurra haurreskolan anai-arrebekin batera egotea.

Haurraren anai-arreba edo guraso izatea egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Familia libururik ez balute, guraso izaera erregistro zibileko inskripzio bidez eta anai-arreba izaera errolda bidez egiaztatu beharko dira.

Haurraren tutore izatea egiaztatzeko, epaiaren kopia edota dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da.

Atal honi dagokion puntuazioa ematerakoan, familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin-betiko nahiz adopzio aurreko harrera-familia egoeran dauden adingabeak ere anai-arrebatzat hartuko dira.

Halaber, atal honetan ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian, haurraren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitatzat edo amatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anai-arrebatzat hartuko dira haurrarekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkondata daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

4.2. Bizilekuaren edo lantokiaren gertutasuna; gehienez 7 puntu (Kontzeptu hauek ez dira metagarriak).

- Amak, aitak edo legezko tutoreak haurreskolan lan egiteagatik 7 puntu.
- Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea haurraren bizilekua: 5 puntu.
(Haurreskolarik ez dagoen kasuetan, bizilekutik gertueneko haurreskolarako esleituko dira puntuak).
- Eskatutako haurreskolaren udalerrian izatea aitaren, amaren edo lege ordezkariaren lantokia: 3 puntu.

Gurasoak haurreskolan lan egiteagatik puntuak eskuratzeko beharrezkoa izango da izen-emate epean ama, aita edo legezko tutorea haurreskolan lanean aritzea.

Haurra eta aita, ama edota legezko tutorea bizi diren etxea joko da familiaren bizilekutzat. Kasu horretan, haurraren eta guraso edota tutoreen errolda-agiri eguneratua¹ eta Nortasun Agirien (atzerritarren kasuan, Atzerritarren Identifikazio Zenbakia edo Pasaporte) kopiak aurkeztuko dira familiaren bizilekua egiaztatzeko edo izen-ematearekin batera ematen den erudian Errolda kontsultatzeko baimena eman ziurtatu ahal izateko hori horrela dela.

Kontsulta egiteko baimenik izan ezean, EAetik kanpo edo elkarreragingarritasun-sisteman sartuta ez dagoen udalerrri batean bizitzekotan (Arrigorriaga, Berango,



Derio, Galdakao, Leioa, Ortuella eta Mungia), bizikidetza-padroiaren ziurtagiria, Udalak egina, hiru hilabeteko antzintasuna izango duena, gehienez ere.

Haurraren guraso izatea egiaztatzeko, erregistro zibileko inskripzioaren kopia aurkeztuko da. Haurraren tutore izatea egiaztatzeko, epaiaren kopia edota dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da. Erregistro zibileko inskripzioa ez balute, familia liburuarekin egiaztatuko da.

Aitaren, amaren edota legezko tutorearen lantokia eta eskatutako haurreskola udalerrri berean badaude eskaria aurkeztean, egoera hori kontuan hartzeko aukeratu daiteke bizilekua balioetsi beharrean.

Kasu horretan, lantokia egiaztatzeko, besteren kontura ari diren langileak badira, enpresaren titularrak edo langileen arduradunak sinatutako ziurtagiri eguneratua¹ eta ibilbidea irekita duen gizarte segurantzako lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua¹ aurkeztu behar da. Agiri horrek adierazi behar du haurraren amak, haren aitak edo haren tutoreak enpresa horretan lan egiten duela. Jarduera norberaren kontura bada, jarduera ekonomikoen gaineko zergan altaren ziurtagiria edo udalak emandako irekitze-baimenaren kopia konpultsatua eta lan-bizitzaren ziurtagiri eguneratua¹.

Lantokia eta haurreskola udalerrri berean egoteagatik ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian haurraren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurraren aitatzat edo amatzat hartuko da. Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkondata daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

4.3.- Ama, aita edo legezko tutoreen lan-egoera; gehienez ere 5 puntu.
(Behin-betiko ezintasun iraunkor absolutua, lanean jardutearekin parekatuko da ondorio hauetarako)

- Bi gurasoak edo legezko tutoreak lanean jardutea: 5 puntu
- Guraso bakarreko familietan guraso bakarra edo legezko tutorea lanean jardutea: 5 puntu
- Guraso bat lanean eta bestea, edo legezko tutoreak, enplegu bilaketa aktiboan egotea edo ikasketa ofizialak egiten: 2 puntu.
- Bi gurasoak legezko tutoreak edo, guraso bakarreko familia bada, guraso bakar hori enplegu-bilaketa aktiboan egotea edo ikasketa ofizialak egiten aritzea: 2 puntu.

Atal honetako puntuazioa eskuratzeko, lan-ibilbidea irekita duen Gizarte Segurantzako lan bizitzaren ziurtagiri eguneratua¹ aurkeztu beharko da. Erregimen berezietan dauden langileen kasuan (adibidez, mutualitate batean daudenak) lan-bizitzaren ziurtagiririk ez badute erregimen honetan altan daudenaren ziurtagiri eguneratua¹ aurkeztu beharko dute.

OHARRA: LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuan kontsulta egiteko ematen den baimena ez da baliagarria lanean jardutearen egoera kontsultatzeko.



Behin-betiko ezintasun iraunkor absolutuaren kasuan, Gizarte Segurantzaren dagokion ebazpenaren kopia.

Enplegu bilaketa aktibo egoera egiaztatzeko, LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren LEABD ziurtagiria aurkeztu beharko da, kontsulta egiteko baimenarekin batera. Egoera honegatik puntuazioa lortuko da LANBIDEn irizpideen arabera lan bilaketa aktiboan dauden kasuetan.

Ikasketa ofizialak egiten aritzea egiaztatzeko ikasketen matrikula ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ikasketa ofizial edo prestakuntza araututzat jotzen da Hezkuntza Ministerioak araututakoa, baimendutako ikastetxeetan ematen dena, ezarritako ikasketa-plan bati jarraitzen diona eta titulu ofizialak ematen dituena.

Eszedentzia egoerak kontutan hartuko dira baldin eta lan-ibilbidea irekia duen lan-bizitzaren ziurtagiarekin batera enplegatzaileak emandako ziurtagirian lanpostura itzultzeko data zehazten bada eta data hori gehienez haurra haurreskolan hasi eta hilabete bat beranduagokoa bada.

Aldi baterako gabetze egoera berezia onartu zaien pertsonak, behar bezala justifikatzen badute (Eusko Jaurlaritzaren ziurtagiri eguneratuarekin) eszedentzian daudenen izaera bera izango dute.

Guraso bakarreko familien kasurako kontuan hartuko dira araudi honen "4.7. Familia ugariko kidea edo guraso bakarreko familia izatea" puntuan zehaztutakoak.

4.4.- Familia-unitatearen urteko errenta; gehienez 4 puntu. (d azpiataletako puntuak batu daitezke atalaren gehienezko puntuazioa lortu arte).

Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan oinarrituz eta 2025eko abenduaren 15eko aginduaren arabera, familia-unitatearen urteko errentaren baremorako irizpideak ezartzen dira:

- a) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 79.380 € edo gutxiagokoa bada: puntu 1.
- b) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 47.628 € edo gutxiagokoa bada: 1,5 puntu.
- c) 2024ko errenta-aitorpenaren zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren zerga-oinarriaren batura 15.876 € edo gutxiagokoa bada: 2 puntu.
- d) Eskatzailea ez den adin txikiko seme-alaba bakoitzarengatik: 0,25 puntu.

Aipatutako puntuazio hori lortzeko, familia-unitateko kide guztien 2024ko Ekitaldi Fiskaleko Zerga Oinarri Orokorrei dagozkien diru-sarrerak hartuko dira kontuan. Familia-unitateko kide guztien urte horretako Errenta Aitorpenaren datuak kontsultatzeko baimena eman beharko dio Haurreskolak Partzuergoari edo dokumentuaren kopia aurkeztu beharko dute edo, hala badagokie, baterako Aitorpenaren kopia.

Zerga-arauek ezarritakoari jarraituz familia-unitateko kideren batek urte horretako Errenta Aitorpena egin ez badu, dagokion Ogasunak emandako ziurtagiri eguneratua¹ (aitorpena egin ez izanarena) diru sarrerak zehaztuz aurkeztu beharko da.



Familia-unitatea osatzen duten kide guztiek errenta aitorenkin ez badute egin edo espainiar estatutik kanpo egon izan badira, dagokion ogasunak edo jatorrizko herrialdeko administrazioak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horretan 2024. urtean jaso duten edo dituzten errenta guztiak eta PFEZari egotzi dakizkiokeen errendimenduak azalduko dira.

Gizarte-laguntzen hartzaileen kasuan, udalaren gizarte-zerbitzuek edo beste erakunde edota elkarte ongile batzuek egindako ziurtagiria aurkeztu ahal da.

Familia-unitatea

32/2015 Dekretuaren (martxoaren 17koa, familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistema erregulatzen duen dekretua aldatzekoa) 4. artikulua araberan, honako osagai hauek dituen hartzen da familia-unitatetzat:

- a) Eskatzailea.
- b) Haren ezkontidea, ezkontza-deuseztasunik, banatzerik edo dibortziorik izan ez bada, edo harekin izateko bikote gisa bizi ohi dena, betiere eskatzailea emakumeen kontrako indarkeriaren biktima ez bada eta egoera hori dekretuaren hirugarren paragrafoan ezarritako moduan egiaztatu badu.
- c) Haiek zaintza eta jagoletzapean dituzten eta etxebizitza berean bizi diren seme-alabak

Aita eta ama etxebizitza berean erroldatuta ez badaude eta haien artean ezkontza-loturarik ez badago, adingabearen ama eta aita izateko bikote gisa bizi ohi direla uste izango da, non eta ebazpen judizialaren bidez egiaztatzen ez duten elkarrekin bizi ez direla. Ebazpen horretan bertan emango da semearen edo alabaren zaintza-eta jagoletza-erregimenari buruzko erabakia.

Halaber, bikoteko bi kideei buruzko aipamenak sexu bereko pertsonak osatutako bikoteei zein sexu desberdinekoek osatutakoei buruzkoak direla ulertuko da. Anai-arreben kopurua familia-liburuaren kopia baten bidez egiaztatuko da, eta adin txikiko anai-arrebak bakarrik hartuko dira kontuan. Familia-libururik ez balute, dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

4.5. Haurren desgaitasuna edo amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena; gehienezko puntuazioa: 3 puntu.

- Haur eskatzailearena: 3 puntu.
- Haren amarena, aitarena, legezko tutorearena edo anai-arrebaren batena: 2 puntu.

Atal honi dagozkion puntuak emateko, aipatutako pertsona horietako batek %33ko edo gehiagoko desgaitasuna izan behar du. Desgaitasuna bi pertsonak edo gehiagok badute ere, puntuak horietako batengatik bakarrik emango dira; beraz, gehienez, 3 puntu lortuko dira atal honetan, desgaitasuna haurrak berak badu, eta 2 puntu, desgaitasuna aipatutako familiarteko batek badu.

Desgaitasuna egiaztatzeko, dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuek edo Estatuko antzeko beste organo batek emandako ziurtagiria aurkeztu behar da. Desgaitasunaren legezko aitorenkin adierazi behar du ziurtagiri horrek eta desgaitasun-maila %33koa edo gehiagokoa dela jakinarazi.



Haurren anai-arreba edo guraso izatea egiaztatzeko, familia-liburuaren kopia aurkeztuko da. Haurren tutore izatea egiaztatzeko, epaiaren kopia edota dagokion ziurtagiri ofiziala aurkeztuko da. Familia libururik ez balute, guraso izaera erregistro zibileko inskripzio bidez eta anai-arreba izaera errolda bidez egiaztatu beharko dira.

Atal honi dagokion puntuazioa ematerakoan, familia-unitatean legezko tutoretza-egoeran edota behin-betiko nahiz adopzio aurreko harrera-familia egoeran dauden adingabeak ere anai-arrebatzat hartuko dira.

Atal honetan ematen den puntuazioa zenbatzeko garaian, haurren zaintza guraso bakar baten gain badago, guraso horren legezko bikotekidea ere haurren aitatzat edo amatzat hartuko da. Pertsona horren seme-alabak ere anai-arrebatzat hartuko dira haurrekin batera bizi badira. Egoera hori dagokion errolda-agiriaren bidez egiaztatuko da.

Zaintza duen gurasoaren bikotekidea dela ziurtatzeko, guraso horri zaintza ematen dion epaiaren kopia aurkeztu behar da, eta biak elkarrekin ezkondata daudela egiaztatzen duen familia-liburua edota izatezko bikote direla adierazten duen ziurtagiri ofiziala ere aurkeztu behar da.

4.6. Genero-indarkeriaren biktima izatea; puntu 2.

Egoera hori Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 23. artikuluan aurreikusitako moduetako batean egiaztatuko da: genero-indarkeria delitu batengatiko kondena-epaia, babes-agindua edo biktimaren aldeko kautelazko neurri bat ebazten duen beste edozein ebazpen judizial, demandatzailea genero-indarkeriaren biktima dela adierazten duten zantzuak daudela agertzen duen Fiskaltzaren txostena edo gizarte-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo Administrazio Publiko eskuduneko genero-indarkeriaren biktimentzako harrera-zerbitzuen txostena.

4.7. Familia ugariko kidea edo guraso bakarreko familia izatea; gehienez 1,5 puntu

- Guraso bakarreko familia izateagatik: puntu 1.
- Guraso bakarreko familia izateagatik, bi haur edo gehiagorekin: 1,5 puntu.
- Maila orokorreko familia ugariko kidea izateagatik: puntu 1.
- Maila bereziko familia ugariko kidea izateagatik: 1,5 puntu.

Guraso bakarreko familiatzat edo gurasobakartasun-egoeran dagoen familiatzat hartzen dira Guraso bakarreko familien araubidea ezartzen duen abenduaren 2ko 232/2025 Dekretuaren 3. artikulua 1 eta 2 puntuetan zehaztutakoak.

Hori horrela, guraso bakarreko familia edo gurasobakartasun egoeran dagoen familia dela ziurtatzeko "Guraso bakarreko familiaren edo gurasobakartasun-egoeran dagoen familiaren ziurtagiria"-ren kopia aurkeztu beharko da, edota hau eduki ezean hau lortzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa; alegia, "Guraso bakarreko edo guraso bakarreko egoeran dagoen familia izaera aitortzeko eskabidea" orrian zehaztutakoak.



Familia ugaria dela egiaztatzeko:

- Eskatzailea EAEn, bizi bada eta familia ugariko kidea dela adierazten badu, Ongizate, Gazteria edo Erronka Demografikoa Sailari galdetu edo kontsulta egingo zaio betiere familiak horretarako baimena ematen baldin badu. Egoera hori egiaztatu ezin bada eskatzaileak ezarritako epean aurkeztu beharko du frogagiri ofiziala.
- Eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ez badira, familia ugaria dela egiaztatzeko, bizi diren autonomia-erkidegoak emandako titulu ofiziala aurkeztuko da.

4.8. Terrorismoaren biktima izatea; puntu 1

Egoera hori egiaztatuko da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzaren edo Estatuko edo beste autonomia-erkidego bateko antzeko erakunde baten ebazpen bidez.

4.9. Haur eskatzailea harrera-familian egotea; puntu 1

Egoera hori, dagokion Foru Aldundiak emandako ebazpen bidez egiaztatuko da.

5. Berdinketa gertatuz gero

Aurreko ataletan lortutako puntuazio handiena hartuko da kontuan, atalak banan-banan alderatuta eta honako ordena honi jarraituz:

- 5.1.** Anai-arrebak haurrekolan matrikulatuta egotea edo aita, ama edo legezko tutorea haurrekolan lan egitea aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5.2.** Haurraren bizilekua edo amaren, aitaren edo legezko tutorearen lantokiaren kokalekua aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5.3.** Haurren desgaitasuna edo amaren, aitaren edo legezko tutorearen desgaitasuna aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5.4.** Haur eskatzailea harrera-familian egotea.
- 5.5.** Genero-indarkeriaren biktima izatea.
- 5.6.** Terrorismoaren biktima izatea.
- 5.7.** Familia ugariko kidea edo guraso bakarreko familia izatea aintzat hartzen duen atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5.8.** Ama, aita edo legezko tutoreen lan-egoera atalean lortutako puntuaziorik handiena.
- 5.9.** Familia-unitatearen urteko Errentarik baxuena (Zerga-oinarria + aurrezkiaren oinarrien baturarik baxuena).
- 5.10.** Aurreko puntu guztiak kontuan hartuta berdinketa egoten jarraitzen badu abizenen eta izenaren hurrenkera alfabetikoa erabiliko da azken irizpide moduan. Letra bat zozketatuko da, eta puntuazio bereko hautagaiak letra horretatik hasiko dira alfabetikoki ordenatzen. 2026-2027 ikasturterako «R» letra izango da.

6. Erditze anitzeko kasuetan

Erditze anitzeko kasuetan baremazio prozesua burutu ondoren haur bat onartua eta bestea/k ez onartuak izanez gero, kanpoan gelditu den familia unitateko haurra/k onartua/k izango da/dira beste haurrekin batera.

Hau ez da aplikatuko aukeratutako haurreskolan erditze anitzeko familia horretarako nahikoa plaza huts eskaintzen ez direnean.

7. Izena ematea

7.1. Apirileko izen-ematea

2026-27 ikasturtean Haurreskolak Partzuergoan honako egutegi komun hau ezarriko da eskariak aurkezteko eta haurren onartze-prozeduraren epeetarako:

a) Eskariak aurkeztea, online / aurrez-aurre:	Apirilaren 13tik maiatzaren 4ra
b) Behin-behineko zerrendak argitaratzea:	Ekainaren 5ean
c) Erreklamazio eta subsanazio epea:	Ekainaren 8tik 12ra
d) Eskaerari uko egitea:	Ekainaren 25ara arte
e) Behin-betiko zerrendak argitaratzea:	Ekainaren 26an
Haurren hasiera-data haurreskolan:	Irailaren 4a edo haurreskolak bere egutegian zehaztutako datan

Maiatzaren 1etik 10era arte jaiotako haurrak maiatzaren 20ra arte eman ahalko dute izena. Jaio berri hauek izen-ematea gauzatu ondoren, ezin izango dute dokumentazio berririk aurkeztu.

7.2. Epez kanpoko eskaerak

Irailetik apirilera bitartean, familiek ikasturtean zehar eman ahalko dute izena, online edo haurreskolan bertan eskaera entregatuta. Ekainean eta uztailean ez da haur berririk hasiko.

Epez kanpoko eskaerak **hilabete bakoitzaren 1etik 8. egunera arte** jasoko dira. Behin plaza esleituta, haurrak onartuak izan diren haurreskolako hurrengo hilabetearen lehen lanegunean hasiko dira.

Abenduan, martxoan eta apirilean zehar egiten diren epez kanpoko eskaeren egutegiak moldatuak izan daitezke urteko jaiegunen egutegi ofizialera zein haurreskolen egutegiko jai-egunetara egokitu ahal izateko.

a) Eskariak entregatzea:	Hilaren 1etik 8ra
b) Behin-behineko zerrenden jakinarazpena:	Hilaren 15etik 18ra
c) Erreklamazio eta subsanazio epea:	Behin behineko zerrenden jakinarazpenaren hurrengo laneguna
d) Eskaerari uko egitea:	Behin-betiko zerrendak argitaratu aurreko azken laneguna
e) Behin-betiko zerrendak argitaratzea:	Hilaren 19tik 22era
Haurren hasiera-data haurreskolan:	Haurreskolako hurrengo hilabetearen lehen laneguna

7.3. Eskaerak gauzatzeko prozedura

- a) Aurreko ikasturtean matrikulatuta dauden hurrek ez dute berriz ere eskaria egin behar, beren plaza automatikoki bermatzen baitzaie, betiere dauden haurreskolan eta ordutegian.
- b) Eskaerak online aurkeztu ahal izango dira. Horretarako Ikasguneko helbide honetatik egin ahal izango da izen-ematea, <https://ikasgunea.euskadi.eus/>. Paperean ere egin ahal izango dute familiak izen-ematea, haurra matrikulatu nahi den haurreskolan web orrialdean eskegita, eta familien esku dagoen, inprimaki eredu ofiziala aurkeztuz.
- c) Eskaerak aurkezteko epean, eskatzaile bakoitzak haurreskola bakarrean egin behar du eskaera. Eskariak aurkezteko epe berean haurreskola batean baino gehiagotan eskaera eginez gero, eskatzaileak aukera-eskubideak galduko ditu eta egin duen lehen eskaera hartuko zaio kontuan.
- d) Eskariak onartzeko epea itxi eta gero, ezin izango da dokumentu berririk aurkeztu. Baremorako dokumentuak modu egokian osatu ezean, batere punturik gabe geldituko da atal edo azpiatal horretan. Dena den, horrek ez du eskaria baliogabetzen, ezta beste atal edo azpiataletan lortutako puntuak ere.
- e) Matrikulatuta egon arren, haurreskolaz aldatu nahi duten hurrek izen-emate epean eskaera berria egin beharko dute ezarritako prozedurari jarraituz.
- f) Izen-emate prozeduraren ondoren eskatu duten haurreskola berrian behin-betiko onartzen badira, galdu egingo dute jatorrizko haurreskolan zuten plaza.
- g) Izen-emate prozeduraren ondoren eskatu duten haurreskola berrian itxaron zerrendan gelditzen badira, eta itxaron zerrenda horretan mantendu nahi izanez gero, uko egin beharko diote aldeztu aurretik duten plazari.
- h) Izen-ematea egiterakoan jarritako aukeretako batean haurra onartua baldin bada, nahiz eta ez izan bere lehenengo aukera, haurra automatikoki itxaron zerrendatik desagertuko da.

7.4. Haurren behin-behineko zerrendaren argitalpena

Apirileko izen-ematearen haurren zerrenden argitalpena arautzeko, Haurreskolak Partzuergoa ikasleak onartzeko eta eskolatzeko, urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan oinarritzen da.

Izen-emate epea amaitu ondoren, arautegi honetan ezartzen diren epeetan, onartuen eta hautagaien zerrendak argitaratuko dira haurreskoletako iragarki taulan, baita "Ikasgunea" atarian ere. Baremoaren atal bakoitzean eskuratutako puntuazioa eta puntuazio orokorra argitaratuko dira.

7.5. Haurren behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak

Apirileko nahiz epez kanpoko izen-emate prozesuan onartutako haurren behin-behineko zerrendak argitaratu ostean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da horretarako arautegi honetan ezarritako epean, haurreskolan bertan 01PO idatziaren bitartez.



7.6. Haurren behin-betiko zerrendaren argitalpena

Aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, apirileko nahiz epez kanpoko izen-emate prozesuen onartuen eta baztertuen behin-betiko zerrendak argitaratuko dira haurreskolan eta "Ikasgunea" atarian, erabaki honetan ezarritako epeak kontutan hartuz.

Era berean, haurreskolek, hautagaien zerrendak argitaratuko dituzte dagokien hurrenkeran ordenaturik, hutsik gelditzen diren plazak bete ahal izateko. Hautagai zerrendak dauden haurreskola eta dagokion adin tartean, baje onorioz hutsik gelditutako plazak, zerrenda honetako hautagaiei eskainiko zaizkie zerrendan agertzen diren hurrenkeraren arabera; betiere, kontuan hartuta libre gelditzen den plaza zein adin-tarte eta gelakoa den.

7.7. Gorako helegiteak

Izen-emate prozesuan onartutako haurren behin-betiko zerrendak eta itxaron zerrendak argitaratu ostean, gorako helegitea aurkeztu ahal izango du interesatuak Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeari zuzenduta, HILABETE BATEKO epean, argitaratzearen ondorengo egunetik hasita.

¹ Eguneratuak kontsideratuko dira baldin eta dokumentuaren data eta aurkezte dataren artean 3 hilabete baino gehiago pasatu ez badira.